

## **LANAREN MEMORIA**

Izenburua (behin-behinekoa):

*ABERRIAREN POETA KANTARIA*  
*Xabier Leteren obraren berrirakurketa bat*

AURKEZTEN DUTENAK:

Alexander Gurrutxaga Muxika eta Joana Otxoa de Alaiza Gracia

LABURPENA

Datorren abenduan hamar urte beteko dira Xabier Lete poeta eta kantaria hil zela, eta gure kultur gintzaren esparruan hainbat eta hainbat ekarpen izango dira haren figura lehen planoan jarriko dutenak. Gure proposamena ildo horretan kokatzen da: Leteren figura eta obra berbisitatzeko proiektu bat gauzatu nahi genuke.

1960-70etan itzal handia lortu zuen poeta eta kantaria izan zen Lete, eta bere izenak eta obrak Euskal Herriaren txoko guztietan busti du hainbat belaunaldiren imaginarioa. Horren erakusgarri dira euskal herritarrek ia oharkabean bere egin dituzten hamaika esaera, lerro poetiko, bertso-doinu eta musika. Urteurrenak, gainera, egongo diren omenaldi eta argitalpenei esker, bistan jarriko du Leteren figurari zaion miresmena.

Gure proposamenak hanka bat eremu dibulгатiboan dauka, eremu artistikoan bestea. Oro har, publiko zabalari Leteren mundu poetikoaz jabetzeko baliabideak eskaintzea du helburu. Horretarako, ezinbestekoa da ohiko aipamen, abesti eta poemetatik harantzago joatea, eta Leteren pentsamendu poetikoaren oinarriak, ñabardurak eta erreferentziak azalratzea. Gure proposamenak Leteren ibilbide poetiko eta artistikoaren garapena xehatuko luke, hartzaileri jada ezaguna zaion erreferentzia saretik abiatuz, mundu poetiko letetarrean barneratzeko aukera atsegin bat emanaz.

HELBURU ZEHATZAK

Gure helburua da Xabier Leteren obraren inguruko errezitaldi musikatu bat ondu eta disko-liburu formatuan argitaratzea. Errezitaldi horrek piano-musika eta hitza uztartuko lituzke. Ez dugu, ordea, musikaren eta azalpenen konbinazio soil bat egin nahi, ezta poesia irakurraldi musikatu ohiko bat ere; beraz, asmoa litzateke askotariko konbinazioak egitea poesia, azalpena eta musika uztartuz.

Disko liburu ongi taxutu baten argitalpenak —audio onarekin, irudiz hornitua, testuarekin, etab.— gutxieneko inbertsio bat eskatzen du, eta iruditzen zaigu gisa horretako argitalpen batek ongi bat egin dezakeela hala Eusko Ikaskuntzaren izate orokorrarekin nola Sariketa honen espirituarekin.

Gure aldetik, proiektua arrakastaz gauzatzeko baliabideak ditugula uste dugu. Batetik, azpimarratu behar dugu Gurrutxagak Leteren artxibo pertsonala aztertu duela, eta handik ateratako materialak Leteren mundua ezagutzeko bide paregabea zabaldu duela. Bestetik, Leteren obraren ezagutza xeheak aukera ematen digu interpretazio oso eta, aldi berean, dibulгатibo bat eraikitzeke. Azkenik, formatu artistiko konbinatuak proposamen atsegin eta gozagarria egin dezakeela uste dugu.

Ordubete edo —gehienez— ordu eta laurden inguruko produktu bat sortuko genuke, ikus-entzuleak erraz jasotzekoa, aldi berean Leteren obraren oinarritzko xehetasunak haren eskura jarritz: poemak, azalpenak, argazkiak, datu ezezagunak, abestiak, datu biografikoak, argitaratu gabeko datuak, bere gustuko melodiak, eta abar.

Azkenik, sariketaren baldintzei jarraiki, egileek saiakera labur edo artikulu bat onduko lukete RIEVen argitaratu ahal izateko.

## HELBURU OROKORRAK

Kulturaren alorrean, aski ohikoa da autore edo sortzaile nagusien gaineko jakintza urria izatea hartzaileak. Horrela, idazle nahiz musikari ezagunen kasuan ere, normalena izaten da bizpahiru poema eta dozena bat abesti ezagutzea. Alabaina, sortzailearen mundu poetikoak, haren kontzepzio intelektualak, ihes egiten ditu. Gure proposamenaren oinarrian, hain justu, nolabaiteko falta hori dago, eta hutsune hori ahal bezain modu atseginenean osatzeko xedea.

Xabier Letek, izan ere, autodidakta izan bazen ere, erudizio handia iritsi zuen. Jakin badakigu bere irakurketa asko, literaturaren eta poesiaren esparrutik haratago, filosofiaren esparrukoak zirela. Ikasketa etengabe horrek bere obrari sakontasuna eta konplexutasuna eman zizkion, eta sakontasun horren printzak agertzen dira bere obran, hala gaien joraketan nola adierazpen landuan. Musikaren esparruan ere, herri-tradizioaren zale eta jarraitzaile izan zen batetik —kantutegiak, musika tradizionala, kantari frantsesak... ikasi zituen— baina, bestetik, musika klasiko landuenaren zale ere bazen. Bere pentsamendu poetikoa, ildo horretatik, aberatsa zen oso.

Gure lanak azalekotasunari iskin egin eta Leteren emariaren konplexutasunera gerturatu nahi luke, poeta kantariarengan bat egiten zuten ildoei dei eginez: musikaren esparruan, herri musika, musika klasikoa, kantagintza berria, etab.; literaturaren esparruan, ahozko tradizioa, bertsolaritza, poesia lirikoa, literatura klasikoa, etab.

Bestalde, hartzaileari produktu atsegin eta dotore bat eskaintzeko asmoz, gure lan proposamenak sorkuntzaren eta ikerketaren artean mugitu behar du —esan dezagun,

bidenabar, Letek halako zerbait egin zuela Rilke poetaren inguruan, Karlos Gimenez musikariarekin—.

Konkretuki, Leteren obraren gaineko sorkuntza ariketa egin nahi dugu, batetik. Leteren obra berbositatuz, bere poemak berrinterpretatu eta berrirakurriko ditugu; eta, musikaren esparruan, Leteren musikak, bere musika gogokoak eta bestelakoak uztartuko ditugu. Sorkuntza alor honek Leteren irakurketa pertsonal bat suposatzen du, haren mundua geure egiteko ariketa artistiko bat. Bestetik, ordea, Lete geure egite horretan, publikoari hura gerturatu nahi diogu, eta horretarako beharrezkoa dugu poeta eta kantariaren figura eta obra esplikatzea. Kasu honetan, Leteren pentsamendu poetikoaren garapena, haren pentsamenduaren oinarriak, zenbait gai garrantzitsu... izango ditugu aipagai.

Laburtuz, gure proposamenak Xabier Leteren obra balioan jarri nahi du, eta gaur egungo euskaldunen esku jarri poeta eta kantariaren obra, ongi zaindutako formatu garaikide, dotore eta atsegin baten bidez. Xabier Leteren heriotzaren urteurrena, gure ustez, aukera paregabea da horretarako.